

2017 ko Otsailak 10 ko Prentsaurrekoa

Lehenik eta behin, milesker etorri zareten guztiei, guretzat garrantzitsua da TPE hauteskudeen emaitzen azterketa zuekin partekatzea.



Guretzat argi da zenbakiak modu desberdinean ulertu edo ikusi daitezkeela Parisetik, Bordaletik ala Euskal Herritik begiratzen baditugu. Segur da gaur egun eskuetan ditugun emaitzek ez digutela nahi genukeen azterketa sakon eta zehatz baten egitera ahalbidetzen.

Zentzu honetan, eragile sozial eta sindikal guztiei galdetzen diegu Ipar Euskal Herriko emaitza ofizialak galdetzea. LAB ek joan den ostiralean DIRECCT ari adierazi dion aldarrikapena ri segida baten maitea !

Hala ere, nahiz eta oraindik hemengo xifrak ez izan, hona hemen guk egiten dugun emaitzen azterketa :

Parte Hartzea :

Izan dadila % 7,5a Estatu frantses mailan edota % 8,9a « Akitania Berri » eskualdean, parte hartzea ttipiegia gelditzen dela argi gelditzen da eta ezin gira emaitza horiekin poztu.

Garrantzitsua iduritzen zaigu, parte hartze benetan eskasa izan dela ikusita, sindikatu guztiok autokritika bat egitearekin batera, gogoeta sakon bat eramatea TPE-etan diren langileek sindikalismoarekiko duten hurruntze tendentzia hori ulertu eta gainditzeko. Bide horretan, TPEetako langileak behar den bezala antolatzea beharrezkoa ikusten dugu. **Sindikalismoa birpentsatu dezagun egiazko alternatiba batentzat.**

Emaitzak

Estatu Frantseseko Sindikatu indartsuenak jausten , LAB eta STC igotzen.

Erraiten ahal dugu orokorrean, 2012ko emaitzei konparatuz, estatu Frantses mailako sindikatu indartsuenak lurralde guzietan masiboki jausten direla aldiz LAB edo STC bezalako sindikatuak indartsu igotzen direla. Benetan garrantzitsua da guretzat LAB edo STC bezalako sindikatuen atxikimendua geroz eta handiagoa dela ikustea, etorkizun ertain batean egiazko alternatiba izaiteko helburua baitugu.

LAB bigarren indarra Departamendu mailan

Nahiz eta oraindik departamenduko xifrak ez ukan, gaur egun ditugun tauletatik proiektzio bat departamendu mailarat egiten badugu, zera ikusten dugu :

LAB-ek 884 bozka ukan dituen bitartean,

- CGT-k 1.250 bozka dituela,
- CFDT-k 685 bozka dituela
- FO-k 631 bozka dituela

LAB lehen indarra Ipar Euskal Herrian

Bestalde, **Ipar Euskal Herriko mailarat egiten badugu proiektzio hori, zera ikus dezakegu:**

LAB-ek 884 bozka ukan dituen bitartean,

- CGT-k 586 bozka dituela,
- CFDT-k 321bozka dituela
- FO-k 296 bozka dituela

Bukatzeko eskertu nahi genituzke guretzat bozkatu duten,langile guziei eta baita ere gurekin batera lanean aritu diren guziei.

“Sindikalismoa birpentsatu dezagu egiazko alternatiba batentzat”

Travailler et vivre au Pays Basque,

langileek **bertan** erabaki

LAB